# XAKEKO TALDEKAKO EUSKAL LIGA.
## (2020ko urtarrilaren 11tik martxoaren 7ra).

## OHOREZKO MAILA.

### 2020-02-29 (GOIZEAN, GROSEN LOKALEAN): ZAZPIGARREN TXANDAKO NEURKETA ATZERATUA

**Orvina A (Iruñea, Nafarroa) (10'5) – Endroke (Arrigorriaga, Bizkaia) (8'5): 2-2.**

**Unai Garbisu De Goñi (2.442) (Orvina A)** – Adrian Martinez Fernandez (2.354) (Endroke): 1-0.
Eihartze Buiza Prieto (2.075) (Endroke) – Pablo Urriza Iricibar (2.313) (Orvina A): 0'5-0'5.
Mikel Ortega Lopez (2.264) (Orvina A) – Aitzbeltz Buiza Prieto (2.075) (Endroke): 0'5-0'5.
**Xabier Martinez Ibisate (1.897) (Endroke)** – Juan Sanciñena Arpide (1.656) (Orvina A): 1-0.

### 2020-02-29: ZORTZIGARREN TXANDA

**Easo (Donostia, Gipuzkoa) (12) – Arrasate/Arlutz (Aretxabaleta, Gipuzkoa) (10'5): 2'5-1'5.**

**Endroke (Arrigorriaga, Bizkaia) (10'5) – Calasanz (Gasteiz, Araba) (11'5): 1'5-2'5.**

**Gros A (Donostia, Gipuzkoa) (24) – Orvina A (Iruñea, Nafarroa) (12'5): 2'5-1'5.**

Alejandro Franco Alonso (2.394) (Gros A) – Unai Garbisu De Goñi (2.442) (Orvina A): 0'5-0'5.
**Pablo Urriza Iricibar (2.313) (Orvina A)** – Santiago Gonzalez De la Torre (2.420) (Gros A): 1-0.
**Iñigo Argandoña Riveiro (2.416) (Gros A)** – Mikel Ortega Lopez (2.264) (Orvina A): 1-0.
Juan Sanciñena Arpide (1.656) (Orvina A) – **Jose Luis Muñoz Avila (2.153) (Gros A)**: 0-1.

**Itsas Zaldunak/Altzaga (Santurtzi, Bizkaia) (7'5) – Donibane Kirol Elkartea (Iruñea, Nafarroa) (12): 1-3.**

Ricardo Perez Pacheco (2.211) (Itsas Zaldunak/Altzaga) – **Luis David Jimenez Almeida (2.232) (Donibane Kirol Elkartea)**: 0-1.

**Jesus Carlos Sanchez Carayol (2.093) (Donibane Kirol Elkartea)** – Xabier Barbazan Bilbao (2.159) (Itsas Zaldunak/Altzaga): 1-0.

**Joseba Llano Olabarrieta (2.130) (Itsas Zaldunak/Altzaga)** – Jose Manuel Lopez Orois (2.021) (Donibane Kirol Elkartea): 1-0.

**Iker Irañeta Unzue (2.020) (Donibane Kirol Elkartea)** – Mikel Sanz Rodero (2.149) (Itsas Zaldunak/Altzaga): 1-0.

**Sestao Bizkaialde (Bizkaia) (23) – Batalla (Irun, Gipuzkoa) (16'5): 3'5-0'5.**

## SAILKAPENA

1) **Sestao Bizkaialde (Bizkaia) – 26'5 puntu.**
2) **Gros A (Donostia, Gipuzkoa) – 26'5 puntu.**
3) **Batalla (Irun, Gipuzkoa) – 17 puntu.**
4) Donibane Kirol Elkartea (Iruñea, Nafarroa) – 15 puntu.
5) Easo (Donostia, Gipuzkoa) – 14'5 puntu.
6) Orvina A (Iruñea, Nafarroa) – 14 puntu.
7) Calasanz (Gasteiz, Araba) – 14 puntu.
8) Arrasate/Arlutz (Aretxabaleta, Gipuzkoa) – 12 puntu.
9) **Endroke (Arrigorriaga, Bizkaia) – 12 puntu.**
10) **Itsas Zaldunak/Altzaga (Santurtzi, Bizkaia) – 9'5 puntu.**

## DONIBANEK ETA ORVINA A-K BUKAERA LASAIA ZIURTATU ZUTEN, TEORIAN

Donibane eta Orvina A-k bukaera lasaia izanen dutela ematen du. Donibanek 1-3 irabazi zion Itsas Zaldunak/Altzaga azken sailkatuari eta hiru puntuko koltxoia dauka jaitsierarekiko.

Luis David Jimenezez ziurtatu zuen puntua lehenengo mahaian. Jesus Carlos Sanchez Carayolek ere bai, bigarren mahaian. Oso txapelketa ona egin du. Iker Irañeta ere ederki aritu zen, elo gehiago zuen jokalari baten aurka garaipena lortuta (2.149ko Mikel Sanz Roderoren aurka).

Jose Manuel Lopez Oroisek, ordea, galdu egin zuen, hirugarren mahaian. Horrela, erabat lasai ezin du jokatu Sestao erraldoiaren aurka, azkeneko egunean, badaezpada ere.

Orvina A berriz ere apal aritu zen larunbat goizean Endrokeren aurka, Donostian jokatu zen atzeratutako partidan: 2-2. Unai Garbisu berriz izan zen taldeko zutabea eta eloko 2.354ko Adrian Martinez Fernandez garaitu zuen. Juan Sanciñenak, ordea, galdu zuen laugarren mahaian. Pablo Urriza eta Mikel Ortega ezin irabazirik ibili ziren Eihartze eta Aitzbeltz Buiza Prieto neba-arreben aurka. Bi berdinketa horiek berriz eloa galtzea eragin die.

Arratsaldean hobeto aritu zen Gros A ahalguztidunaren aurka, Ligako bere garaipena kolokan jartzeraino.

Unai Garbisuk Alejandro Francoren aurka berdindu zuen eta Pablo Urrizak garaipen bikaina eskuratu zuen Santiago Gonzalez De la Torreren aurka. Mikel Ortegak eta Juan Sanciñenak, ordea, galdu zuten: Iñigo Argandoña eta Jose Luis Muñoz Avilaren aurka, hurrenez hurren.

Orvina A-k bi puntura dauka jaitsiera, modu harrigarrian aurten, baina azken sailkatuaren aurka dauka azkeneko neurketa.

## 2020-03-07 (SESTAON, 15:30ean): BEDERATZIGARREN TXANDA

Arrasate/Arlutz (Aretxabaleta, Gipuzkoa) (12) – Batalla (Irun, Gipuzkoa) (17).
Donibane Kirol Elkartea (Iruñea, Nafarroa) (15) – **Sestao Bizkaialde (Bizkaia) (26’6)**.
Orvina A (Iruñea, Nafarroa) (14) – Itsas Zaldunak/Altzaga (Santurtzi, Bizkaia) (8’5).
Calasanz (Gasteiz, Araba) (14) – Gros A (Donostia, Gipuzkoa) (26’5).
Easo (Donostia, Gipuzkoa) (14’5) – Endroke (Arrigorriaga, Bizkaia) (12).

## DONIBANEK ETA ORVINA A-K LASAI JOKATUKO DUTE, BAINA EZ ERABAT

Sestaok eta Gros A-k titulurako borroka luzatuko dute azkeneko hatsera arte. Endrokek eta Arrasate/Arlutzek jaitsierako postu bat izanen dute jokoan. Hori dirudi. Donibanek eta Orvina A-k ez lukete estuasunik igaro behar. Hala ere…

Donibanek Sestaoren aurka jokatuko du. Jakina, Sestao ero moduan joanen da 0-4ko emaitzaren bila. Liga emanen lioke. Hala gertatzen bada, Donibanek ez luke jaitsi behar, baina emaitza bitxiak gertatuz gero, matematikoki litekeena da. Hori akuilu moduan izanen du azkeneko txandan eta ez dio erraz Liga jarriko Sestaori.

Orvina A-k bi puntura dauka jaitsiera, baina azken sailkatuaren aurka eta dituen jokalariekin, ez luke arazorik izan behar. Hala ere, ezin da erlaxatu.

Liga txarra egin du Orvina A-k (gehiago espero zen). Egutegiak, ordea, eman diezaioke laugarren postuan azkeneko txandan. Batalla Arrasate/Arlutz-en aurka hondoratuko balitz, agian hirugarrena ere bai.

**Informazio gehiago: “http://xake.net/2020-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_20/2020-HD_Alineaciones%20y%20sedes.html” eta “http://xake.net/2020-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_20/2020-DH_inicio.html” webguneetan.**

# LEHENENGO MAILA.

## 2020-02-29: ZORTZIGARREN TXANDA

**Abadiño (Bizkaia) (19’5) – Orvina B (Iruñea, Nafarroa) (10’5): 3-1.**

Alain Prieto Aranguren (2.277) (Abadiño) – Gustavo Jimenez Martin (2.113) (Orvina B): 0’5-0’5.
Gonzalo Mombiela Martinez (2.102) (Orvina B) – Yeray Galzagorri Uli (2.204) (Abadiño): 0’5-0’5.

**Jon Lagos Lejarraga (2.109) (Abadiño)** – Javier Cinza Lopez (2.022) (Orvina B): 1-0.
Esteban Garraza Obaldia (2.021) (Orvina B) – **Ibon Martin Etxeandia (2.144) (Abadiño)**: 0-1.

**San Viator (Gasteiz, Araba) (20’5) – Gros B (Donostia, Gipuzkoa) (16): 2-2.**

David Astasio Lopez (2.392) (San Viator) – **Patrice Etchegaray (2.325) (Gros B)**: 0-1.
Nathaniel Capote Robayna (2.187) (Gros B) – **Fabian Peña Duarte (2.237) (San Viator)**: 0-1.
Igor Villalta Bustillo (2.214) (San Viator) – Josu Manterola Ubillos (1.950) (Gros B): 0’5-0’5.
Patrice Torres (1.882) (Gros B) – Diego Gutierrez Bustillo (2.004) (San Viator): 0’5-0’5.

**Zuri Baltza (Bilbo, Bizkaia) (10) – Portugalete (Bizkaia) (10’5): 1’5-2’5.**

Paulo Alberdi Sololuce (2.242) (Zuri Baltza) – Modesto Perez Fernandez (2.134) (Portugalete): 0’5-0’5.
Juan Manuel Ruiz Abad (2.104) (Portugalete) – Jose Javier Garrido Legarreta (1.985) (Zuri Baltza): 0’5-0’5.
Iñaki Garcia Rodriguez (1.944) (Zuri Baltza) – **Ibon Barrio Ugidos (2.066) (Portugalete)**: 0-1.
Enrique Ayesta Perojo (2.049) (Portugalete) – Daniel Trigo Beiro (1.846) (Zuri Baltza): 0’5-0’5.

**Santa Ana (Tutera, Nafarroa) (8’5) – Oberena (Iruñea, Nafarroa) (18): 1-3.**

Moises Laguardia Ortega (2.033) (Santa Ana) – Javier Habans Aguerrea (2.067) (Oberena): 0’5-0’5.
**Aurelio Vila Dupla (2.067) (Oberena)** – Mauricio Torres Calvo (1.810) (Santa Ana): 1-0.
Alejandro Fuentes Guinot (1.570) (Santa Ana) – Pedro Viñal Gutierrez (2.036) (Oberena): 0’5-0’5.
**Cristian Atipov Hadzhiev (2.009) (Oberena)** – Mikel Santos Usua (1.539) (Santa Ana): 1-0.

**Conteneo (Bilbo, Bizkaia) (14’5) – Eguzki (Urnieta, Gipuzkoa) (12): 2-2.**

Carlos Varas Gonzalez (2.227) (Conteneo) – **Luis Angel Ortega Fuentes (2.167) (Eguzki)**: 0-1.
Josu Aguirre Canflanca (2.164) (Eguzki) – Johnny Fernando Sadusea (2.132) (Conteneo): 0’5-0’5.
Santiago Sanz Castillo (2.080) (Conteneo) – Felix Manso Marquez (2.054) (Eguzki): 0’5-0’5.
Javier Corral Sierra (2.042) (Eguzki) – **Miguel Angel Ontiveros Acuña (2.026) (Conteneo)**: 0-1.

## SAILKAPENA

1) **Abadiño (Bizkaia) – 22’5 puntu.**
2) **San Viator (Gasteiz, Araba) – 22’5 puntu.**
3) **Oberena (Iruñea, Nafarroa) – 21 puntu.**
4) Gros B (Donostia, Gipuzkoa) – 18 puntu.

5) Conteneo (Bilbo, Bizkaia) – 16’5 puntu.
6) Eguzki (Urnieta, Gipuzkoa) – 14 puntu.
7) **Portugalete (Bizkaia) – 13 puntu.**
8) **Orvina B (Iruñea, Nafarroa) – 11’5 puntu.**
9) **Zuri Baltza (Bilbo, Bizkaia) – 11’5 puntu.**
10) **Santa Ana (Tutera, Nafarroa) – 9’5 puntu.**

## ABADIÑO ETA SAN VIATOR BURUAN, ABANTAILAREKIN

Abadiño eta San Viator taldeak azkeneko txandara iritsi dira abantailarekin Oberenarekiko, nahiz eta ezer ez dagoen erabakita.

Abadiñok garaipen bikaina lortu zuen Orvina B-ren aurka (3-1), hauek talde indartsua eraman zuten arren. San Viatorrek berdinketa besterik ez zuen egin Gros B-ren aurka, baina puntuen tarte ederra zuen hirugarrenarekiko. David Astasiok galdu zuen Gros B-ko Patrice Etchegaray-ren aurka.

Oberenak asko zuen jokoan Tuteran Santa Anaren aurka eta motz geratu zen emaitzan (1-3 irabazi zuen). Talderik onena ez zuten tuterarrek atera.

Conteneok eta Urnietako Eguzkik berdinketa egin zuten Bilbon. Conteneok ia ziurtatu du horrela mailari eustea. Eguzkik borrokan segitu beharko du Portugaleterekin.

Hain zuzen ere, hauek 1’5-2’5 irabazi zioten Zuri Baltzari. Bilbotarrak kondenatuta daudela dirudi.

## 2020-03-07 (SESTAON, 15:30ean): BEDERATZIGARREN TXANDA

Orvina B (Iruñea, Nafarroa) (11’5) – Eguzki (Urnieta, Gipuzkoa) (14).
Oberena (Iruñea, Nafarroa) (21) – Conteneo (Bilbo, Bizkaia) (16’5).
Portugalete (Bizkaia) (13) – Santa Ana (Tutera, Nafarroa) (9’5).
Gros B (Donostia, Gipuzkoa) (18) – Zuri Baltza (Bilbo, Bizkaia) (11’5).
**Abadiño (Bizkaia) (22’5)** – San Viator (Gasteiz, Araba) (22’5).

## ABADIÑO – SAN VIATOR ETA OBERENA – CONTENEO, IGOTZEKO BI POSTUEN BILA

Zirraragarria izanen da Lehenengo Mailako azkeneko txanda. Sestaon jokatuko da. Abadiño eta San Viator berdinduta daude buruan eta euren arteko dema izanen dute.

Puntu eta erdira dago Oberena eta abantaila hori murriztu nahiko du, biek puntu guztiak eramaterik ez dutelako. Conteneo ez da aurkari erraza horretarako. Bi taldek lortuko dute Ohorezko Mailarako igoera.

Portugaletek Santa Ana izanen du aurrean (dagoeneko maila galdu du). Emaitza on baten bila hasiko dute bizkaitarrek. Ondoan, Orvina B – Urnieta lehia izanen da. 2’5 puntuko tartea jan behar diote iruindarrek gipuzkoarrei. Gainera, Santa Anaren laguntza beharko du. Zaila dirudi miraria. Ziur aski, Urnietak garaipen bikaina lortzea izanen du helburu, Portugaleterekiko lehiari begira. Ustekabe handirik ezean, bi talde hauetako bat jaitsiko da eta bestea mantenduko da.

Gros B – Zuri Baltza neurketak interes gehiago dauka bilbotarrentzat. Hauek ere miraria behar dute. Oso emaitza ona lortu eta aldeko emaitza batzuk behar dituzte. Ziur aski, gehiegi.

San Viatorrek Gros B hartuko du. 2'5 puntuko abantaila darama Oberenarekiko, baina lehia zailak geratzen zaizkio. Ikusiko dugu lehenengo erronka gainditzen duen.

Abadiñok Orvina B jasoko du. Igoera ziurtatzeko puntuak behar ditu. Premia handia du Orvina B-k ere, azkeneko txandara mantentzeko aukerekin iritsi nahi badu. Bizkaitarrak dira faborito, hala ere.

Oberenak Tuterara bidaiatuko du, 0-4 irabazteko asmotan. Tuterarrek, ordea, zerbait zuzendu dute hasiera txarra eta ez diote ezer dohainik emanen.

Conteneok Eguzkiren aurka jokatuko du Bilbon. Urnietarrek gehiago behar dituzte puntuak. Ikusiko dugu nola moldatzen diren bi taldeak.

Zuri Baltza – Portugalete neurketa dramatikoa izanen da. Ziur aski, talde batek mailari agur erranen dio, matematikoki finkatuta geratuko ez bada ere.

**Informazio gehiago: "http://xake.net/2020-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_20/2020-PD_Alineaciones%20y%20sedes.html" eta "http://xake.net/2020-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_20/2020-PD_inicio.html" webguneetan.**

**2020-02-29.**

**Iturriak: Euskal Xake Federakuntza eta "ajedrezvasco.com" webgunea.**